

AURKEZPENA

Berdingidaren xedea informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzea da, EAEko enplegu- eta prestakuntza-eragileen sareari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaien inguruan. Aipatu informazio- eta aholkularitza zerbitzu horiek 2007-2013 epean aukera-berdintasunerako proiektuak aurkezteko eta finantzazio-iturriak eskatzeko deialdi orokorren ingurukoak izango dira.

Informazioa eta aholkularitza eskaintzeko bokazio bikoitza du, eta horien bidez, helburu hauek lortu nahi lituzke:

- **Informazioa eskura jartzea:** emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako proiektuek dituzten finantzazio-aukerei buruzko informazioa eskaintzen du, bai EB 2007-2013 epeko programazio-aldi berrirako Erkidegoko Programa eta Ekimen berrietatik sortuak, bai hainbat mailatako ekimenetatik sortuak (tokiko mailan, autonomia-mailan, estatu-mailan eta nazioarteko mailan).
- **Aholkularitza espezializatua eskaintzea,** bai eskuragarri dauden finantzazio-bideak argitzea, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako proiektuak aurkezteko, diseinatzeko eta kudeatzeko. Eta hori, nazioarteko, estatuko, autonomiako eta tokiko mailatan.

Erakunde bakoitzari egokitutako arreta: telefonoz: 94 470 64 02
eta posta elektronikoz: info@berdingida.net

AURKIBIDEA...	Or.
❖ Deiadi Irekiak	2
❖ Hurrengo deialdien aurreikuspena	5
❖ Albisteak	6
❖ Garapenarako lankidetzak	9

>> **DEIALDI IREKIAK**>> **INTERREG IVC.****Aurreikusitako data: epemuga 08/01/15**

INTERREG, IVC FEDERek kudeatua, Europako Lurralde-elkarlanaren Helburuaren parte da. Europako eskualdeen etengabeko elkarlana sustatzea du xede, ezagutzak eta esperientziak partekatzeak.

Proiektuak aurkezteko iradokizunak:

- **Ekintzailetzari eta ETEei dagokien atala:**

- ✎ emakumeen eta gizonen arteko bideratutako proiektuak, emakume sustatzaileen parte-harzea handitzera zuzendutako neurrien bidez, eta bereziki, behar baino emakumezko ordezkari gutxiago dauden alorretan (1-E1 Ahalduztze-programa: enplegua berdintasun-egoeran eskuratzea. Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako IV. Euskal Plana, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).

- **Enpleguari, giza kapitalari eta hezkuntzari dagokion atala:**

- ✎ **Puntako sektoreetan teknologia- eta ezagutza-eskakizun handiko enplegu teknikoetan eta betiko industria-sektoreetan** dagoen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa murriztera bideratutako proiektuak. (1-E1-Ahalduztze-programa: enplegua berdintasun-egoeran eskuratzea. IV. PAPME planaren E1.1. eta E1.2. helburuak, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).
- ✎ **Administrazio publikoetan eta alor pribatuko enpresatan** emakumeen eta gizonen **lan-baldintzak berdintzera** bideratutako proiektuak, lana duen populazioaren portzentaje handienari lehentasuna emanez. (2-E2- Ahalduztze-programa: emakumeen eta gizonen lan-baldintzak berdintzea. IV. PAPME planaren E2.1. helburua, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).
- ✎ Gainerako langileen **lan-baldintzen zehaztapenetik kanpo** dauden emakumezko langile **taldeen lan-baldintzak eta gizarte-estaldurak berdintzera** bideratutako proiektuak. (2-E2- Ahalduztze-programa: emakumeen eta gizonen lan-baldintzak berdintzea. IV. PAPME planaren E2.3. helburua, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).
- ✎ **Enpresa arloko gizarte-arduraren** gainerako proiektuak, lana eta bizitza bateragarriak egitearekin lotutakoak. (2-C2- Bateratze-programa: sostengu-zerbitzuak eta bizitza laborala, pertsonala eta familia bateragarri egiteko neurriak. IV. PAPME planaren C2.1. eta C2.2. helburuak, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).

Besteak beste, deialdiari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta proiektuari buruzko informazio zuzena jasotzeko, esteka hauetara jotzea gomendatzen dugu:

http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/europa/b_01_11_07.pdf (Euroate informazio-buletina)

<http://interreg4c.net/application.html> (Proiektuari buruzko informazio xehea)

>> IKASKETA IRAUNKORRA.**Aurreikusitako data: proposamenen arabera epemuga zehatzak**

Proposamen-deialdiaren oinarria ikasketa iraunkorraren arloko ekintza-programa zehazten duen Erabakian dago. Erabaki hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartu zuten 2006ko azaroaren 15ean, eta 2007-2013 epea hartuko du.

Proiektuak aurkezteko iradokizunak:**• Leonardo da Vinci Programa**

- ✎ Emakumeen parte-hartzea handituz, **puntako sektoreetan teknologia- eta ezagutza-eskakizun handiko enplegu teknikoetan** dagoen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa murriztera bideratutako proiektuak. (1-E1- Ahalduntze-programa: enplegua berdintasun-egoeran eskuratzea. IV. PAPME planaren E1.1. helburua, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).
- ✎ Emakumeen parte-hartzea handituz, **betiko industria-sektoreetan eskakizun tekniko handiko enpleguetan** dagoen emakumeen eta gizonen arteko **desberdintasun kuantitatiboa** murriztera bideratutako proiektuak (1-E1- Ahalduntze-programa: enplegua berdintasun-egoeran eskuratzea. IV. PAPME planaren E1.2. helburua, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).
- ✎ **Enpresa-ekimenen eraketan eta sendotzean** emakumeen eta gizonen arteko **desberdintasun kuantitatiboa gutxitzea** bideratutako proiektuak, emakume sustatzaileen parte-hartzea handitzera zuzendutako neurrien bidez, bereziki behar baino emakumezko ordezkari gutxiago dauden alorretan. (1-E1- Ahalduntze-programa: enplegua berdintasun-egoeran eskuratzea. IV. PAPME planaren E1.3. helburua, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).

• Comenius Programa

- ✎ Planteamendu pedagogikoetan eta ikastetxeen kudeaketan hobekuntzak sustatzera eta **lehen eta bigarren hezkuntzako eta HHEko urteko planetan hezkidetzat integratzea** bideratutako proiektuak. (*Mainstreaming* 1-M1- Programa: ikastetxeetan hezkidetzat sustatzea. IV. PAPME planaren M1.1. helburua, VIII. Legealdiko ildo nagusiak).

Besteak beste, deialdiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta proiektuei buruzko informazio zuzena jasotzeko, esteka hauetara jotzea gomendatzen dugu:

http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/site/es/oj/2007/c_230/c_23020071002es00040004.pdf

(deialdiaren testua)

http://ec.europa.eu/education/programmes/llp/index_en.html (informazio gehiago)

>> PROGRESS.

Aurreikusitako data: epemuga 07/12/31

VT/2007/119 lizitazio publikoa: enpleguaren eta gizarte-politikaren etorkizunaren azterketa Europan. Hauek dira azterketaren helburuak:

- ✎ Informazio-oinarri bat eratzea, Europako Batzordeari eta estatu kideei gizarte- eta enplegu-politiken garapenaz eta aplikazioaz erabakiak hartzen laguntzeko, informazio hobeaz eta epe luzeagoaz.
- ✎ Aurrera begira, Europako Batzordearentzako estrategia bat prestatza, gizartearen eta enpleguaren esparruetan.

Lizitazioaren diru-kantitatea 390.000 € da. Edozein pertsona fisikok edo juridikok aurkez lezake bere eskaintza, bakarka nahiz zerbitzu-emaile talde edo hornitzaile gisa. Ez dira egongo forma juridiko zehatzik hartzera behartuta, kontratua esleitu aurretik; esleipenaren ondoren, ordea, litekeena da baldintza hori eskatzea, kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoa jotzen bada. Haatik, eragile-ekonomiko talde batek arduradun bat hautatu beharko du, honako lan hauek betetzeko: taldeko kideen ordainketak biltzea eta tratatzea, zerbitzua kudeatzea eta koordinatzea. Taldeko kide bakoitzak ardura bateratua eta solidarioa hartu beharko du, Batzordearen aurrean.

Lizitazioari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero:

http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/europa/b_01_11_07.pdf (Euroate informazio-buletina)

http://ec.europa.eu/employment_social/emplweb/tenders/tenders_en.cfm?id=2505

>> HURRENGO DEIALDIEN AURREIKUSPENA**>> DAPHNE III.****Aurreikusitako data: 2007ko abendua**

Haurren, gazteen eta emakumeen aurkako bortizkeriari aurrea hartu eta haren aurka borrokatzeko eta biktimak eta arrisku taldeak babesteko berariazko programa, oinarritzko eskubideen eta justiziaren programa orokorrean txertatua (2007-2013).

Erkidegoaren Politiken -zehazki, osasun publikoarekin, giza eskubideekin eta genero-berdintasunarekin zerikusia duten politiken- garapenari laguntzea du helburu, bai eta haurren eskubideak babestera bideratutako ekintzak eta pertsonen salerosketaren eta sexu-esplotazioaren aurka borrokatzera bideratutako ekintzak garatzea ere.

Programa irekia dago administrazioentzat, tokiko gobernuentzat, GKEentzat, ikerketa-zentruentzat eta auzi honetan zerikusia duten beste erakunde batzuentzat; eta hori, estatu kideetan, herrialde atxikigaietan, EFTA herrialdeetan eta errepublika balkanikoetan. Parte hartzeko, nazioz gaindiko proiektu bat aurkeztu beharko da, non gutxienez bi herrialdek hartuko baitute parte.

Deialdiaren edukia eta eskaera egiteko datu-orria programaren web orri ofizialaren bitartez hedatuko dira:

http://ec.europa.eu/justice_home/funding/daphne3/funding_daphne3_en.htm

Informazio gehiago eskuratzeko, "Daphne toolkit" izeneko web orrira jotzea gomendatzen dugu; bertan, 1997tik aurrera finantzatutako proiektu guztiei buruko informazioa eskaintzen da, proiektu horietatik sortutako produktuak eta emaitzak barne.

<http://www.daphne-toolkit.org/>

Proiektuak aurkezteko iradokizunak:

Administrazio publikoetan eta alor pribatuko enpresetan sexu-jazarpenari aurrea hartzeko eta haren aurka borrokatzeko protokoloak ezartzera bideratutako ekintzak, lana duen populazioaren portzentajerik handiena hartzen duten jarduera alorrei lehentasuna emanik, sexu-jazarpen hori agerian uzteko eta murrizteko (1-V1- bortizkeria programa: sexu-jazarpenera lantokian. IV. PAPME planaren V1.1. helburua, VIII. Legealdiko ildo nagusiak):

- ✚ Sexu-jazarpenak hartzen dituen formen eta lortzen duen inpaktua (V1.1.A.1)
- ✚ Sexu-jazarpenezko egoerei aurrea hartzeko eta haiek konpontzeko prozedurak prestatzea eta hedatzea, bai eta aholkularitza, laguntza, ikerketa, salaketa eta aplikatzea daitezkeen isunen gaineko prozedurena ere (V1.1.A.4)
- ✚ Sexu-jazarpenera tipifikatzeko dauden arau guztien hedapena egitea (nazioarteko mailan, Europako mailan, Estatuko mailan eta Autonomia Erkidego mailan) enpresa, sindikatu eta langileen artean (V1.1.B.1)
- ✚ Ikusentzunezko materialak prestatzea sexu-jazarpenera zer den eta zer ez den argitzeko, bai eta haren tratamenduaz eta prebentzioaz, eta enpresen eta sindikatuen artean hedatzeaz ere (V1.1.B.2)

OHARRA: Deialdia argitaratzen ez den artean, ezinezkoa da finantzatutako diren ekintza zehatzak ezagutzea, baita parte hartzeko finantza-baldintzak zein izango diren jakitea ere. Beraz, litekeena da proiektuak aurkezteko egiten diren iradokizunen ñabardurak aldatzea.

>> **ALBISTEAK**>> **"Proiektu-estrategia sinesgarri bat nola garatu, EBtik diru-funtsak lortzeko: tokiko eta eskualdeko eragileek egin behar dutena eta ez dutena" 3. Mintegia**

Mintegia Bartzelonan izango da, 2008ko otsailaren 4tik 6ra bitartean. Administrazio publikoren batean, tokiko edo eskualdeko agintzaritza edo erakunderen batean lan egin eta europar funtsaren bati lotuta dauden baliabideen diseinuan, garapenean edo ezarpenean parte hartzen duen pertsona orori zuzenduta dago mintegia. Oso interesgarria izan daiteke, orobat, mota horretako proiektuak lehen aldiz prestatu beharrean aurkitzen diren pertsona, GKE, elkarte, unibertsitate-sail, aholkularitza-zerbitzu eta abarrentzat.

Mintegiaren helburu orokorrak dira, batetik, eskualdeko eta tokiko eragileen beharrezan inbentarioa egitea, 2007-2013 epeari dagokion programazio-aldi berriari begira. Bestetik, behar dituzten trebetasunak eskuratzen laguntzea parte hartzen duten pertsonari; hartara, proiektu-estrategia bat garatzen ari direnean ekintza hobeak antolatzeke eta funtsak lortzeko trebetasun handiagoak izango dituztelakoan.

Mintegian izena emateko epemuga **urtarrilaren 25a** da. Izen emateari, programari, ostatuari edo bestelakoei buruzko informazio gehiago eskuratzeko:

<http://www.eipa.eu/en/activities/show/&tid=2384>

>> **Emakumea eta lantokiko bortizkeriari buruzko azterlana**

EUROFUNDek, lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko Europar Fundazioak, emakumeak eta lantokiko bortizkeria ardatz izan dituen azterlana aurkeztu du. Laurogeita hamargarren hamarkadan hasita, lantokiko jazarpenaz, bortizkeriaz eta bereizkeriaz azterketak egiten dihardu EUROFUND erakundeak.

Azterlan horrek lan-baldintzen gainean Europa-mailan egindako galdeketen emaitzarik berrienak analizatzen ditu; hau da, 2005eko datuak. Erabilitako lan-metodologia elkarriketetan oinarritutakoa izan da. Hala, 31 europar herrialdetan –estatu kide guztiak barne direlarik– 30.000 pertsonari baino gehiagori egin zaizkio elkarriketak. Azterlanak ardatz hartu dituen kontzeptu nagusiak "lantokiko jazarpena" eta "sexu-jazarpena" izan dira.

Azterlanaren testu osoa eskuratzeko:

<http://www.eurofound.europa.eu/pubdocs/2007/110/en/1/ef07110en.pdf>

>> **Eurokamararen konpromisoa lantokiko jazarpenaren kontrako borrokan**

Azaroaren 21ean eman da ezagutzera, Europako Parlamentuko Emakumeen Eskubideen eta Genero Berdintasunaren Batzordean, EUROFUND erakundeak lantokiko jazarpenaren gainean egindako txostena. Txosten horretan bildutako datuek agerian uzten dutenez, 2005ean Europar Batasuneko emakume langileen % 6k eta gizonen % 4,5ek jazarpen ez-sexuala jasan zuten lantokian (hau da, jazarpen moralak edo psikologikoa).

Artikulua eskuragarri, hemen:

http://www.europarl.europa.eu/news/public/story_page/014-13242-325-11-47-902-20071115STO13230-2007-21-11-2007/default_es.htm

>> Ordenagailuen eta Internet sarearen erabileran dagoen genero-desberdintasunari buruzko txostena

Eurostat erakundeak azterlan bat eman du argitara, Heidi Seybert-ek sinatua, ordenagailuen eta Internet sarearen erabileraren inguruan dauden genero-desberdintasunei buruz.

Ikerketaren helburua da IKTen ohiko erabileran emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak aztertzea, EBko estatu kideen artean. Oinarrian ideia hau dago: IKTen erabilera ezinbestekoa dela Europako gizartearen zein ekonomiaren garapenarentzat. Europako ia herrialde guztietan, eta ia adin-tarte guztietan, gizonak maizago erabiltzen dituzte IKTak emakumeek baino. Bestalde, informatikarekin lotuta dauden lanpostuetan gizon gehiago daude, emakumeak baino.

Artikulua eskuragarri, hemen:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-07-119/EN/KS-SF-07-119-EN.PDF

>> Aukera-berdintasunerako Politiken Idazkaritza Nagusiaren Aukera-berdintasunerako plan estrategikoaren (2008-2011) zirriborroa

Aukera-berdintasunerako Politiken Idazkaritza Nagusiak Aukera-berdintasunerako plan estrategikoaren (2008-2011) zirriborroa jarri du eskuragarri bere web orrian. Planaren zirriborroa zenbait printzipio iradokitzailearen eta printzipio gidariren inguruan egituratuta dago. Bestalde, hamabi ekintza-ardatz definitzen ditu; haietako bakoitzarentzat, berriz, azalpenezko marko teorikoa, Estatuan gaur egun dagoen egoeraren diagnostikoa eta helburu estrategikoak eta ekintzarako proposamenak ezartzen dira.

Planaren zirriborroan definitzen diren bi ekintza-ardatzak hauek dira: *Parte-hartze Politikoa eta Soziala; Parte-hartze Ekonomikoa, Ardura Partekatua; Hezkuntza; Berrikuntza; Ezagutza; Osasuna; Irudia; Aniztasunaren Trataera eta Gizarte-inklusioa; Bortizkeria; Kanpo- eta Elkarlan-politika eta Berdintasun-eskubidearen Babesa.*

Zirriborroaren dokumentua eskuragarri, hemen:

<http://www.mtas.es/igualdad/PlanEstrategico.pdf>

>> Aniztasunaren Trataerarako Gida

Prodiversity nazioz gaindiko taldeak argitaratu du gida hau, Equal izeneko Erkidego-ekimenaren esparruan. Editore, berriz, *Equalbur* elkarteak izan da.

Gidaren helburu orokorra enpresak aniztasunaren kudeaketan inbertitzeak duen garrantzi handiaz jabetzea da. Abiapuntu gisa barneratu beharreko ideiak dira, batetik, gizartean gertatzen diren aldaketekin lotuak izanik, enpresan sortzen diren beharrian espezifikoak erantzuna eman liezaiokeela kudeaketa horrek. Bestetik, gidak errealitatea argiro ulertzeko modua eskaitzen duela, bai eta ingurune aldakorrei erantzuteko tresnak ere.

Gidari buruzko informazio gehiago eskuragarri, hemen:

http://www.equalbur.org/documentos/productos-resultados/GUIA_EMPRESAS_castellano.pdf

>> LANEren artikulua, lan-mundutik amen heriotza-tasari aurre egiteko moduez

LANEk artikulua bat idatzi du, lan-mundutik amen heriotza-tasari aurre egiteko moduen gainean. Artikulua "Amatasun segurua eta lan-mundua" izeneko txostenaren laburpena da, urriaren 18tik 20ra Londresen izan zen "Emakumeak bizi-emaile dira" hitzaldian aurkeztu zena. Minuturo emakume bat hiltzen da, haurdunaldian edo erditzean. 2006an, familia izateko adinean dauden emakumeen % 60 munduko lan-indarraren parte zen.

Artikuluari buruz informazio gehiago eskuragarri, hemen:

http://www.ilo.org/global/About_the_ILO/Media_and_public_information/Feature_stories/lan_g--es/WCMS_084753/index.htm

>> Gizarte-eragileen Berdintasun-programa. Gaurkotasun-buletina

"Berdintasunak enpresa sortzen du" EQUAL Erkidegoko Ekimenaren proiektua da. Asturiasko Printzerriko Gobernuak sustatzen du, Emakumearen Asturiasko Institutuaren eta Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, eta Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatuta dago. Proiektuaren xedea enplegua eskuratzeko bidean berdintasuna bultzatzea da, emakumeen enpresa-ekimenak bultzatuz. "Berdintasunak enpresa sortzen du" proiektutik, zazpigarren gaurkotasun-buletina aurkeztu dute. Buletin horrek generoari eta aukera-berdintasunari buruzko hainbat albiste eta erreferentzia biltzen ditu.

Buletinari buruz informazio gehiago eskuragarri, hemen:

<http://www.igualdadcreaempresa.com/leerBoletin.asp?idBoletin=11>

>> GARAPENERAKO LANKIDETZA

>> INTERREG IVC

Wielkopolska poloniar eskualdeak kideak nahi lituzke, Europako Lurralde-mailako Elkarlan Programaren (INTERREG IV B BSR, INTERREG B CEP E INTERREG IVC) baitan, eta Informazioaren Gizartearen esparruan, proiektuak garatzeko.

Informazio gehiago, hemen:

<http://www.wielkopolska.mw.gov.pl/doc.php?dcid=3065&grid=626>

<http://www.wielkopolska-region.pl/index.php?aid=110354058941c6b16d1a8f8>

www.wielkopolska.eu

>> EQUALLOCAL

Île-de-France frantziar eskualdeak kideak nahi lituzke EQUALLOCAL Programaren baitan. Programa horren helburua lehiakortasuna areagotzea da, tokiko agintaritzaren jardueren garapenean genero-ikuspegia integratzeko orduan. Hauek dira programa definitzen duten lehentasunak: *Ezagutzaren berrikuntza eta ekonomia; Berrikuntza eta Ikerkuntza eta Garapen teknologikoa.*

Informazio gehiago, hemen:

http://server1.icos.at/icf2007/details_project.php?id=1414

>> NEWW SAREA

1991ean sortu zen NEWW sarea, Europa Erdialdeko eta Ekialdeko (estatu burujabe berriak eta Errusiar Federazioa barne izanik) emakumeen errealitatean interesa duten pertsona eta erakundeen artean nazioarteko komunikazioa, baliabideak, informazio-trukea eta aktibismoa bultzatzeko.

Testuinguru horretan, emakumeek gidatutako eta haiengana zuzendutako programa eta ekintzak garatzen dihardu NEWWk, Europako Batasunako Estatu kide berrietan (hala nola, Polonian, Eslovakian, Txekiar Errepublikan eta abar), bai eta herrialde atxikigaietan ere (adibidez, Kroazian eta Mazedonian).

Sarea osatzen duten erakundeez, haien ekintza-eremuaz, jardueraz eta abar informazio gehiago eskuragarri, hemen:

<http://www.neww.org.pl/en.php/home/index/0.html>

>> MIKROFINANTZEN EUOPAR SAREA (REM)

Mikrofinantzen Europar Sarea (REM) gobernu kanpoko elkarte da, eta 2003ko apirilean sortu zen Europako Batasunaren eta *Caisse de Dépôts et Consignations* (CDC) erakundearen diru-laguntzarekin. Kide fundatzaileak dira Adie (*Association pour le droit à l'initiative économique*) Frantzia, NEF (*New Economics Foundation*) Erresuma Batuan, eta EVERS&JUNG Alemanian.

REM sarearen xedeak dira, batetik, mikrofinantzak bultzatzea, eskusio sozialaren eta ekonomikoaren aurkako tresnak diren aldetik. Bestetik, mikroenpresa eta lan independentea bultzatzea ere bilatzen du.

REM sareaz, berau osatzen duten erakundeez, programez edo ematen dituen zerbitzuez eta abarrez informazio gehiago eskuratzeko:

http://www.european-microfinance.org/index2_es.php